



## Iritsi dira

**TOLOSALDEA ETA LEITZALDEA** ▶ Bi eskualdeetako txokoak eta etxeak bisitatu dituzte Erregeek, eskaerak entzunez eta opariak banatuz; Iruran, haurren jaiotza lehiaketako sariak banatu dituzte ▶ 2,3



**Tolosa.** Txinparta elkartekoek gonbidatuta, lurreamendin izan ziren Erregeak lehenik, eta kabalgatari ekin zioten ondoren. N. LATABURU



**Amezketeta.** Gazte Taldeko kideek lagunduta, herriko baserriak eta etxeak bisitatu zituzten Erregeek Amezketan. N. URBIZU



**Alegia.** Goiztiarrenak izan ziren alegitarrak: dantzariak kalejira egin zuten atzo goizean, trikitalariak eta soinu-joleak lagunduta. N. URBIZU

**IBARRALDEA** ▶

### Guraso Eskolak antolatu ditu Ulik

Belauntzan, Leaburun, Gaztelun eta Orexan izango dira, lau astez ▶ 6

**ANOETA** ▶

### Gaztetxeen desalojoen aurkako festa

Triki poteoa, afaria, proiektzioa, musika... bihar, Gaztetxean ▶ 4

**LEITZA** ▶

### 'Aupa Etxebeste' filma ikusgai asteburuan

Ohiko saioez gain, gaur eta bihar ere eskainiko dute ▶ 7

**Bridge**  
Luzuzko Baberri

**BRIDGE 2005, S.L**  
**INGELES**

- Haur, gazte, helduentzat.
- Taldeetan edo bakarka.
- Azterketa prestaketa; Cambridge University, H.E.O....
- Interprete eta itzulpen zerbitzuak

943 652 372 - 680 222 526  
bridgetolosa@yahoo.es

Pablo Gorosabel, 2-1A • 20400 Tolosa - Gipuzkoa

**AMEZKETETA** ▶

### Euskara elkarteak sortzeko lehen pausoak ematen

Herriko euskaltzale talde bat hasi da elkartzeko eta helburuak finkatzeko ▶ 5



Taldebtxoa, herenegun; hirugarren bilerara ere deitu dute. N. URBIZU

ERREGE BEZPERA ▶

# Errege Magoen etorrera

Meltxor, Gaspar eta Baltasar Errege Magoek Tolosaldeko eta Leitzaldeko hainbat eta hainbat herri bisitatu zituzten atzo, bateko eta besteko haurrek egindako eskaerak entzun eta gozokiak banatuz



Tolosako lurreamendi adinekoen egoitzan izan ziren atzo arratsaldean Errege Magoak; argazkian, haur bat Baltasar erregearekin. N. LATABURU



Amezketan, gozokiak banatu zizkieten Meltxorrek, Gasparrek eta Baltasarrek arratsalde partean haurrei. N. URIBIZU

IRATXE ETXEBESTE  
NOELIA LATABURU

Berezia izaten da urtero, batik bat haurrentzat, Errege bezpera. Atzokoa izan zen egun hori, eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko umeez ilusioz hartu zituzten beren herriraino zaldiz, oinez edo bestela heldu ziren Meltxor, Gaspar eta Baltasar Errege Magoak. Beren eskerak entzunez jardun zuten Erregeek, eta hainbat lekutan gozokiak ere banatu zizkieten.

Alegian egin zieten ongietoria lehendabizi Errege Magoei atzo goizean. Kultur Etxetik abiatu ziren herriko dantzariak kalejiran, aurretik trikitalariak eta atzetik soinu-joleak zituztela. Gurasoak gertu-gertu zituzten haurrek, eta herriko kaleak zeharkatu zituzten guztiak elkarrekin, auzo bakoitzean geldialditxoak egin eta emanaldia eskainiz. Larraitz auzoko bi enparantzetan, Kalebeheran eta udaletxe aurrean aritu ziren. Intxurre elkartearen bazkalduta zuten ondoren.

Arratsalde partean Tolosako lurreamendi adinekoen egoitzan izan ziren Errege Magoak Txinparta elkartekoek gonbidatuta. Haur ugari joan ziren bertara, eta kaperan hartu zituzten Erregeek, banaka. Umeek eskariak egin zizkieten beren magalean eserita, eta batzuk harriduraz begiratzeko zieten. lurreamendikoak amaituta, Izaskunera abiatu ziren Meltxor, Gaspar eta Baltasar, urteroko kabalgatari ekiteko.

Herriko aisialdi taldeek antolatuta egin zuten atzokoa ere ibilbidea makina bat haurrek. Suziriak eskuetan zituztela lagundu zieten Errege Magoei herriko kaleak zeharkatzen, eta udaletxean amaitu zuten ibilia. Hantxe eseri ziren Erregeek, herriko haurrek eskatu-

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan  
**50.000**  
etxetara

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira  
Telf.: 943 65 56 95  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik



Amasatik karrozen gainean jaitsi ziren kabalgatan atzo iluntzean Errege Magoak Villabonaraino. I. ETXEBESTE

takoak entzuteko. Gozokiak eta opariak banatu zituzten udaltxera bildutakoan artean.

Zaldiz iritsi ziren hiru Erregeak Leitzara opariak gurdi handi batean zeramatatzela. Herriko bidegurutzean ohiko geldialdia egin, eta jaiotza biziduna jarri zuten. Bertan, Meltxorrek, Gasparrek eta Baltasarrek eskaintza egin zioten Jesus haurtxoari. Ondoren, plazarako bidea hartu zuten zaldiz, zain zituzten herriko eta inguruko herrietako haurrak.

Amezketan kamioi baten gainean ibili ziren Errege Magoak. Gazte Taldeko kideek lagunduta bisitatu zituzten herriko baserriak eta etxeak. Ugartetik abiatu, eta herrirako bidea egin zuten, geldialdi bakoitzean gozokiak banatuz. Berastegira, aldez, 19:30ean heldu ziren Errege Magoak herriko plazara elizaldetik. Ordubate lehenago jaiotza biziduna egin zuten herriko haurrek bertan, Villabonan bezala. Amasatik barrena atera zen atzokoan Errege kabalgata, herriko kaleak zeharkatuta, Errebote plazara iristeko. Hantxe egin zuten herritarrek jaiotza biziduna.

Berrobin eta Asteasun iluntzean, 20:00etan, hasi ziren Errege kabalgatak. Larte eta Seskea Berri baserrietik iritsi ziren Berrobira, eta plazaruntz joan ziren kabalgatan. Bertan banatu zituzten opariak herriko haurrei Meltxorrek, Gasparrek eta Baltasarrek.

Zizurkilera, berriz, gaur helduko dira Errege Magoak. Zizurkil Goiko San Millan elizan 11:00etan izango den mezan egongo dira. Ondoren, Zimiteiuan opariak banatuko dituzte Erregeek eta Fraisorora egingo dute bisita.

## Jaiotza lehiaketako sariak



Haurrak, gustura, jaiotza lehiaketan saria jasotzeagatik. I. ETXEBESTE

Usadio bilakatu da Iruran Errege bezperan haurrek egindako jaiotza lehiaketako sariak banatzea; halaxe egin zuten atzo ere. Eguberrietan jaiotzak egiten jardun dute herriko haurrek, eta elizako arkupeetan jarri zituzten atzo guztiak ikusgai. Bat eta hiru laguneren artean egin behar zuten umeek jaiotza, eta Udalak adierazi du «maila ona» egon dela aurtengo lehiaketan.

«Lehen txikiei ere ematen genien saria, baina aurtengoa DBHko eta LHko ikasleek jasoko dute», zioen Irurako alkate Marimi Ugaldek lehiaketako sari banaketari buruz galdetzerakoan. Bi mailatan

banatu dute aurtengoa, hor-taz, lehiaketa.

DBHkoen artean, Ioritz Olanok, Amaia Beitiak eta Enara Barandarainek osatutako taldeak jaso zuen saria, eta Lehen Hezkuntzako artetik, berriz, Josune Etxeberriak, Maddi Xiaok eta Naroa Lasak osatutako taldea nabarmendu zen.

Sei lagun horiei banatu zituzten Udalak lehiaketako sariak, baina parte-hartzaile guztiek ere jaso zuten opari-txoa. Hiru eta sei urte bitarteko umeak lehiaketatik kanpo geratu dira aurtengoa; haien herikideek egindako jaiotzak ikusten izan ziren atzo. ◀



Tolosan, kabalgata egin zuten haurrek Errege Magoekin. N. LATABURU



Leitzan, jaiotza bizidunari begira egon ziren lehenik Errege Magoak, eta Jesus haurtxoari eskaintza egin zioten. J. ASTIBIA



Alegian, kalejira egin zuten goizean herriko dantzariak. N. URBIZU

## GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

PNVren betiko  
negozioa.  
Zer egin?

Euskal Herriko gatazka politikoa demokratikoki konpontzeko historikoa omen den une honetan, PSOEk eta PNVk, Espainiako zein Euskal Autonomia Erkidegoko 2006ko aurrekontuen inguruko negoziokoak hitzartu dituzte: Abiadura Handiko Trenaren proiektu inposatu eta txikitzailea eraikitzeko lanak hastea, besteak beste. Atzo, lehenago eta orain, beste behin, PNVko zuzendaritzak bere alderdi eta burgesia klasearen interesak jarri ditu Euskal Herriko nazio eskubideen aurretik, presoen sakabanaketa, tortura, 18/98 auziaren epaiketa... edo alderdiak legez kanporatuta mantentzearen gainetik. Kontua da, zer gehia-

go egin behar duen PNVk, euskal burgesia esplotatzailearen ordezkariak, bereganako konfidantza galtzeko? Eta zer egin behar dute herritarren gehiengo nagusia osatzen duten langile klaseak eta gazteriak?

PNVk ororen gainetik bere klase interesen defentsa dagoela erakutsi du. PNVri zapalketa nazionalari amaiera emateko babesaren eta laguntzaren eske oihu egitea desertuan oihu egitea da. Euskal burgesiak historikoki utzi du azalera behin eta berriz bere «nazionalismoa» poltsikoa hasten den lekuan amaitzen dela. Euskal burgesiak Euskal Herriaren ezartzen ari den salbuespen egoera salatzen du bere funtzionamendua bermatzen duen bitartean. Euskal burgesiak, ezeri baino lehenago bere irabaziei begiratzen dienak, ezin du espainiarra bezalako merkatu bat galtzen utzi. PNV

da estatu espainiarraren aliatu onena herri euskalduna eta ezker abertzalea zapaltzen jarraitzeko eta ez zaio inola ere Euskal Herriaren independentzia interesatzen.

Baina, halaber, Euskal Herriaren lurraldetasun arazoarekin lehendabizi amaitu eta sozialismoaren aldeko borroka geroratzearen ideiak urte askotan zehar trampa mozorrotu bat dela erakutsi du ere, uszteko politika errealista bat bezala. Lurraldetasun arazoa eta euskal gizarteak aurre egin behar dien beste arazo sozialak, ekonomikoak eta politikoak ezin dira sistema kapitalistaren markuaren barruan konpondu. Euskal burgesiak ezin du paper aurrerako bat jokatu arazo hauek konpontzen saiatzerakoan. Bere historia guztian zehar Euskal Herriaren kausa traizionatu du. Imperialismo espainiarrarekin eta

frantsesarekin estuki lotuta dago. Bere sistemak ezin ditu gehiengoaren oinarriko beharrak asetu, osasunaren, hezkuntzaren, etxebizitzaren eta zibilizazioaren beste gutxieneko baldintzen arloan. Ez klase kapitalistak ezta bere sistemak ere ezin dute Euskal Herriak dituen arazo bat bera ere konpondu.

Klaseko mugimendu iraultzaile eta internazionalista behar dugu. Euskal Herria ez dela inoiz baturik egongo eta ez dela librea izango ulertzen dugu langile klasea askatasun nazionalaren aldeko borroka buru jartzen ez bada behintzat, berau iraultza sozialaren aldeko borrokarekin estuki lotuz. Eta ulertzen dugu baita ere gizartearen eraldaketa sozialista aurrera eramateko aurre-baldintza langile klasearen gehienezko batasuna dela. Beharrezkoa da eskaera sozia-

letan eta klaseko eskaeretan oinarritutako borroka bat, langile klasea batzeko gai izango litzatekeena burgesiaren eta kapitalismoaren aurka joateko. Beharrezkoa da klaseko politika bat. Klase bakarra da paper iraultzaile bete dezakeena eta hori langile klasea da. Euskal langile klasearen mugimendu iraultzaile bat ez litzateke ezin mugek oztopaturik egongo. Euskal langile klasearen borroka bateratua inspirazio bat izango litzateke langile klase espainiarrarentzat, frantsesarentzat eta europarrarentzat. Eta noski, programa sozialista iraultzaile bat ezker abertzaleak duen potentzialarekin bateraturik, konbinazio hilgarri bat izango litzateke estatu espainiarrarentzat eta frantsesarentzat, Euskal Herriaren askatasunaren aldeko borrokan.

JESUS MARI ARANZGIZ ETXEA  
MANU ODRIOZOLA ▶ ANOETA

## ZIZURKIL ▶

77 urteko  
gizonezko bat  
galduta dago  
astelehenetik

## ERREDAKZIOA

77 urteko Orencio Moreno Pajares zizurkildarraren berririk ez dute bere ahaideek hilaren 2ko gauetik. Dirudie-nez, azkeneko aldiz Villabonako Txapeldun tabernan ikusi zuten, astelehenean, 20:00ak aldera, traje urdin ilunez jantzita. Senideek kartelak jarri dituzte eta deialdia egin dute bilaketan lagundu nahi duenak gaur azaltzeko, goizeko zortziatik bederatziara, haren bizilekura, hau da, Ubare auzoan dagoen eta Torreta bezala ezagutzen den eraikinerara. 685 77 35 97ra eta 675 70 11 78ra dei dezakete galdutakoaren berri dutenek.

## ANOETA ▶ GIZARTEA

Gaztetxeen desalojoen  
aurkako festa egingo  
dute bihar Anoetakoan

Herriko gizarte eragileek Eguberrietan egindako ekitaldien inguruan «balantze oso positiboa» egiten dute

## ERREDAKZIOA

Anoetako Gazte Asanbladak hainbat ekimen antolatu ditu biharko *Desalojorik ez! Gaztetxeak aurrera* lelopean. 18:00etan Sorgintxulo eta Euskal Jai gaztetxeen desalojoen inguruko DVD izango da ikusgai Gaztetxean. 19:30ean, triki poteoa eta kalejira burutuko dira gaztetxeen defentsan. 21:00etan afaria izango da Gaztetxean, eta ondoren «kon-

tzertu mundiala eta txirrisklas festa», antolatzaileek azaldu dutenez. Kontzertuari dagokionez, hiru talde ariko dira. Lehenik Anoetako Izeba Pilarren Ilobak izango da taula gainean «egurra emateko prest». Ondoren, Skamachine taldea ariko da ska doinueta murgidurik. Talde sortu berri honek sustriak Anoetan ditu, eta biharko izango da bere lehen kontzertua. Ondoren, festarekin jarraitzeko, Nekin taldea ariko da. Aipatu bezala txirrisklasa egongo da inguratzen dena-  
rentzat.

Bestalde, Anoetako Gazte Asanblada, SEGI, AHT Gelditu! eta Anoetarrok Auzolanean plataformaren artean Habonetarako antolatutako ekimenen

inguruan «balantze oso positiboa» egin dute aipatutako gizarte eragileek.

Aurreko asteburuari dago-kionez, abenduaren 30ean Etxerateg hileko azken ostiralerako deitutako presoen aldeko konzentrazioan 30 bat lagun elkartu ziren. Ondoren, Asanbladako kideek «talo goxoak prestatu zituzten eta jendea inguratu zen hauek dastatzeraz». Jonen kontzertuan 175 bat lagun bildu ziren Gaztetxean eta «giro aparta sortu zen». 31n, urtero bezala, udaletxe aurrean elkartu ziren urteko azken egunean presoen estatus politikoa aldarrikatzeko eta Euskal Herriaraztea eskatzeko. Elkarretaraztera 75 lagun inguru bildu zen.

## ANOETA ▶

Eguberrietako  
pinu naturalak  
jasoko ditu Udalak

Anoetako Udalak Eguberrietan herritarrek erabili dituzten pinu naturalak hilaren 9tik 13ra jasoko ditu. Udalak ohar batean adierazi duenez, zaborra botatzen den ohiko lekuetan utzi behar dira pinuak, baina ez kontenedoreen barruan, kanpoan baizik. Pinu natural horiek jaso ondoren, Udalak konposta egitera eramango ditu.

## ASTEASU ▶

453 da Udalaren  
saskiaren  
zenbaki saritua

Asteasuko Udalak herritarren artean zozketatzen duen saskiaren zenbaki saritua aditzera eman du. Olentzerok abenduaren 24an ateratu zuen zenbaki saritua, hau da, 453. Zenbaki hori duenak udaletxetik pasatu beharko du egokitutako saria jasotzerara.

## ZUZENKETA ▶

Atzoko alean publikatutako tabakoaren legearen gaineko erreportaiari, Cristina Gonzalez egotzitako hitzak Idoia De La Ilesiak lurre txokolategiko langilearenak dira.

**KIMETZ**  
Eguberrietako  
eskeintzak  
**%30 eta %50**  
Nagusia, 23 • TOLOSA • Tel.: 943 67 38 62

**OSTATUA**  
• Eguneko Menua (aste guztian, larunbat eta igandea ezik)  
• Karta aste guztian zehar  
Urrope plaza • Leaburu  
Tel.: 943 67 15 48

AMEZKETA ▶ EUSKARA

# Euskara elkarteak egiteko lehenengo pausoak emanak dira

Amezketako euskaltzale talde bat hasi da bileratan euskal kulturarekin lotutako helburu batzuk zehazten eta finkatzen



Herenegun elkartu zen herritar taldea; hirugarren bilerara ere deitu dute dagoeneko. N. URBIZU

NEREA URBIZU

Hamabost bat lagun bildu ziren herenegungo gau aldean, Amezketako balio anitzeko gelan, herrian euskara elkarte bat sortzeko asmoarekin. Bertan, Aritz Larretak Euskara Topagunean emandako informazioaren berri eman zuten: besteen artean, «euskara taldeak federatzearen aldekoak direla» aipatu zuen Larretak, horrek berarekin daukan diru laguntzak eta bestelako hainbat alde on azpimarratuz. «Beste euskara elkarteekin harremana areagotu egingo litzateke eta beharrezko komunikazioa handitu», zioen. Federatuz gero, «kultur talde bezala federatuta egongo litzateke euskara elkarteak».

Talde honek dituen helburuak finkatzen hasi dira, nahiz

eta jakin lan nekeza dela hori. Herriko beharrak argi dute zeintzuk diren: «Herriko kulturari bultzada eman behar zaio, kanpoko jendeari euskara ikasteko aukera eman behar zaio, eta ikasi nahi duenari, borondatea erakusten dion horri, alegia, laguntzea».

Besteen artean, 12 eta 16 urte bitarteko inguruan hitz egin zuten. Izan ere, «herriko nerabeekin komunikazioa areagotzearen beharra» ere ikusten dute, eta belaualdi ezberdinen artean dagoen hitz egiteko ezberdintasunak «aztertzeaz» ere mintzatu ziren.

Bileran elkartu zirenek ekin-tza eta ideia asko dituzte buruan, gogo handiak eta baita behar den motibazioa ere. Baina «horri forma ematea falta da. Izan ere, helburuak finkatetik hasi behar da». Gutxina-

ka, elkarte hau itxura hartzen ari da.

Elkartearen izenaren gainean ere aritu ziren, baina hori beranduago egin daitekeen zerbait dela ere ikusi zuten, beharren arabera, eta baita jasotako erantzunen arabera ere.

«Oso garrantzitsua da herriko jende desberdina biltzea bilera hauetan», zioten bildutakoek, gero eta ideia eta helburu zehatzagoak lortu ahal izateko eta taldeak eskaini nahi dituen zerbitzu hauek errealitateari erantzun hobea emateko. Besteen artean, kantu afaria egiteko asmoa dute, sorpresa batez gain, baina aurrerago zehaztuko dute. Oraingoz, hurrengo bilerara joteko gonbita egin dute; hain zuzen ere, hilaren 20rako, 19:00etan, beti bezala, herriko balio anitzeko gelan.

IKAZTEGIETA ▶ TXIRRINDULARITZA

## Olaberria Munduko Kopara itzuliko da

Lesioak ez zion bigarren proba egiten utzi, baina hirugarrenean ariko da, AEBetan

N. URBIZU

Leire Olaberria txirrindulari ikaztegiatarra Munduko Kopara itzuliko da. Lesioak ez zion utzi txapelketako bigarren proban aritzea, baina hirugarrenean, Los Angelesen (AEB), pistan aritzea lortu du, bere lesiotik berehala osatu baita. Hirugarren proba hone-tan ongi ibiltzea lortzen badu, Bordeleko mundiale-tan postua izango du. Espainiako selekzioarekin ari da, eta bere

hirugarren Munduko Kopan hartuko du parte, honela.

Los Angelesen scratch proba eta puntuaketa egingo ditu. Mundialeko laugarrena, bestealde, Sidneyen (Australia) egingo du martxo aldera.

Leire Olaberriaren konfiantza eta indar fisiko gero eta hobea nabariak dira. Lesiotik berehala osatu, eta berak «esperientzia falta» aitortzen badu ere, emaitza onak lortzeko itxaropentsu da ikaztegiatarra.

TOLOSA ▶ PILOTA



## Tolosan eman diote hasiera Eskuz Binakako Txapelketari

N. Urbizu ▶ Tolosako Beotibar pilotalekuan eman zioten hasiera, atzo, Eskuz Binakako Pilota Txapelketari. Bikoteak zein baino zein onagoak: Asier Olaizola-Otxandorena eta Xala-Gofi III.a. Partida, hala ere, ez zen polita izan. Final-zortzirenetakoa honetan Olaizola I.a-Otxandorena bikoteak irabazi zuen, lau tantoren aldearekin: 22-18. N. URBIZU



**egunkariaren aldeko**  
**Bertso-jaialdia**  
**— ORDIZIA —**  
2006ko urtarrilaren 6an, ostirala  
Majori Kiroldegian - 18:00etan



Saroi Jauregi

**Sarrerak aurrez salgai (8€):**

- Ordizia: Elxaniz
- Beasain: Goierriko Hitzaren egoitza Loizaz taberna
- Zaldibia: Itati taberna
- Lazkao: Gerriko liburutegia
- Urrtxu: Goierriko Hitzaren egoitza

Egun berean (10€)

hitza



## HEZKUNTZA ▶

# Ulik Guraso Eskolak antolatu ditu

Belauntzan, Leaburun, Gaztelun eta Orexan izango dira lau astetan zehar



Belauntza, Leaburu, Gaztelu eta Orexan emango dituzte eskolak. M. S.

## IÑIGO TERRADILLOS

Uli Mankomunitatea osatzen duten udalek, hau da, Belauntzak, Leaburu-Txaramak, Gazteluk eta Orexak Guraso Eskolak antolatu dituzte urtarrilean eta otsailean. Nerabeen eta gurasoen erlazioen arteko hainbat gairen inguruan jardungo dute lau asteetan zehar. Eskolek ordu eta erdiko iraupena izango dute, eta astean behin emango dira herri bakoitzean. Bertan izena eman nahi duenak edo eskolei buruzko informazio gehiago eskuratu nahi duenak Uli Mankomunitatera deitu behar du, 943 68 22 28 telefono zenbakira. Ondorengo gaiak landuko dituzte zehazturiko egun eta orduetan.

## BELAUNTZA

**Osteguna, urtarrilak 12.**

*Garapen psikologikoa haurtzaroan.*

**Osteguna, urtarrilak 19.**

*Arauk eta mugak.*

**Osteguna, urtarrilak 26.**

*Agresibitatea.*

**Osteguna, otsailak 2.**

*Heziketa-sexu afektiboa.*

**Lekua eta ordua.** Kultur Etxean, 17:30etik 19:00etara.

## LEABURU-TXARAMA

**Osteguna, urtarrilak 12.**

*Garapen psikologikoa haurtzaroan.*

**Osteguna, urtarrilak 19.**

*Garapen psikologikoa nerabezeroan.*

**Osteguna, urtarrilak 26.**

*Heziketa estiloak.*

**Osteguna, otsailak 2.**

*Arauk eta mugak.*

**Lekua eta ordua.** Gazte gelan, 19:00etatik 20:30era.

## GAZTELU

**Asteazkena, urtarrilak 18.**

*Garapen psikologikoa haurtzaroan.*

**Asteazkena, urtarrilak 25.**

*Arauk eta mugak.*

**Asteazkena, otsailak 1.**

*Agresibitatea.*

**Asteazkena, otsailak 8.**

*Heziketa-sexu afektiboa.*

**Lekua eta ordua.** Udaletxean, 17:30etik 19:00etara.

## OREXA

**Astelehena, urtarrilak 9.**

*Heziketa estiloak. Arauk eta mugak.*

**Astelehena, urtarrilak 16.**

*Agresibitatea.*

**Astelehena, urtarrilak 23.**

*Heziketa-sexu afektiboa.*

**Astelehena, urtarrilak 30.**

*Beldurren kudeaketa.*

**Lekua eta ordua.** Uli Mankomunitatean,

18:00etatik 19:30era.

## TOLOSA ▶

## Federatu txartelaren tramitazioak

Tolosako Alpino Uzturre elkarteak jakinarazi duenez, 2006. urterako mendiko federatu txartelak tramitatzeko hasi dira. Astelehenetan eta asteazkenetan egin ahal izango dira federatu txartela lortzeko tramitazioak, eta Alpino Uzturreren egoitzara jo beharko da horretarako (Gudari, 5), arratsalde, 19:30etik 21:00etara.

## BELAUNTZA ▶ PILOTA



Herriko gazteek ederki igaro zuten jaialdi berezian. HITZA

## Pilota eskolaren jaialdia egin dute

Pasa den asteko ostiralean egin zuten Belauntzan pilota eskolako jaialdi berezia. Gaztetxoak nahiz gurasoak, jende andana elkartu zen festan. Lehendabizi pilotalekuan elkartu ziren denak, eta bertan pilota partidak jokatu zituzten. Horiek amaitu eta gero, txokolatada zuten zain gaztetxoek. Arratsalde polita igaro zuten festa berezi honetan parte hartu zuten herritarrek.

## TOLOSA ▶

## Meza abestua gaur Santa Maria parrokian

Gaurko egunez ohikoa den moduan, Santa Maria parrokian 11:00etan izango den meza nagusia abestua izango da. Hain zuzen ere, Santa Mariako Musika Kaperak (abesbatza, orkestra eta organoa) Eduardo Mokoroaren *Pastoral* meza, Felipe Gorritiren *Gradual*, *Oi Bethleem* eta *Mesias* piezak eskainiko ditu bertan.

## AIZKORA ▶

## Urrezko Aizkolarien Binakakoa bihar Asteasun

## I. TERRADILLOS

Herri kirolen jaialdi berezia antolatu dute bihar Asteasuneko Udal pilotalekuan, 22:30ean hasita: Urrezko Aizkolarien Binakako Txapelketako saioa batetik, eta harri-jasotze erakustaldia bestetik.

Hain zuzen ere, Anjel Arrospide leaburuarrak eta Fausto Mugerza mutrikuarrrak osatutako bikoteak Ola-sagasti eta Etxebeste igeldorren aurka ariko dira nor baino nor Urrezko Aizkolarien Binakako Txapelketako biharko saioan. Baina, horretaz gain, Aimar Irigoien Errezilgo harri-jasotzaileak erakustaldia eskainiko du; hauek dira burutu beharreko probak: 225 kiloko harria altxatu beharko du, 177 kilo esku batekin igo, eta 150 kilo kubikoa altxatu.

## TELEFONOAK ▶

### Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212

▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua:

683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarraldea.** Osasun ebea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larriald: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amarozk disp.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ **DYA:** 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930

### Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

### Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurrumendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

LEITZA ▶ ZINEMA

# Asteburu berezirako filma bikaina ikusgai: 'Aupa Etxebeste'

Gainera, ohiko saioez gain, gaur eta bihar arratsaldean ere eskainiko dute oso-osorik euskaraz egindako filme hau

JAIONE ASTIBIA

Urtea hasteko eta asteburu luzea hasita dagoenaz baliatuz, Eguberrietako azken jaiak izanen dira honakoak, Leitzako zinemaren ere bikainki ekinen diote urteari, sekulako pelikula proiektatuko baitute honetakoan eta saio gehiegarrarekin, gainera: *Aupa Etxebeste!* filma eskainiko dute. Aspaldiko urteetan oso-osorik euskaraz egin den pelikula, eta kalitatekoa.

Ezaguna dela-eta ospe handia lortutako lana dela ezin uka daiteke, iaz Telmo Esnal zarautzarrak eta Asier Altuna bergararrak elkarrekin zuzendu zuten pelikula hau. Lehenagotik pelikula labur batzuk ere elkarrekin zuzendu bazituzten ere, (*Txotx, 40 ezetz, Topeka*, sarituak suertatu zirenak hauek ere), bientzat aurreneko luzea izan zen *Aupa Etxebeste!*, eta gainera hori euskaraz egitea aukeratu zuten. Donostiako Zinemaldian egin zuten aurkezpena eta zaletuen aldetik, mediodien aldetik, nahiz Zinemaldi-



Etxebestetarrak zeletan. HITZA

ko berezko arloengandik harrrera bikaina egin zitzaion, kritika oso onak jaso eta hainbat sari ere eskuratu zituzten: 2005eko Zinemaldiko izarretako bat izan zen. Zalantzarik gabe, *Aupa Etxebeste!*

Horrela, bada, 97 minutuko iraupena duen komedia hone-tan handiusteko Etxebestetarren familiaren irudikapena egiten da: oporretara Marbellara doazela auzo guztiari jakinarazi eta abiatzekotan direla, Patricio Etxebesteri (Ramon Agirre) bankutik deitzen diote esanez kontu guztiak itxi diz-

kiotela eta sosik gabe dagoela. Itxurak mantendu egin behar, ordea, eta egun argitan euren traste guztiak hartu eta klaxon-hots tartean abiatu, abiatzen dira, baina Maria Luisa emazte-ari (Elena Irureta), aita Luzianori (Paco Sagarazu) eta Iñaki seme-ari (Iban Garate) egoaren berri eman eta oporretarako beste asmo bat proposatzen die, oporrak etxean iragotzeko; baina, hori bai, auzkoak ohartu gabe, gordeta. Bide erdian buelta hartu eta gauaren ilunean eta txintik atera gabe, etxera itzultzen dira. Itxurakeriak, miseriak, gezurrak... Baina sekula izan dituzten oporrik onenak bihurtuko dira.

Punta-puntako pelikula hau ikusteko aukeraz baliatzea gelditzen da, beraz: gaur, sesio bi-koitza, 19:30ean bata eta 22:30ean bestea; bihar, larunbata, 17:00etan; eta etzi, igandea, 19:30ean. Horrelako aukerakin, orain, beta hartu beharra dago.

Hurrengoan *Obaba* filmaren txanda izango da.

PILOTA ▶



Aurrera Pilota Eskolako pilotariak beste bi txapelketetako finalerara ailegatu dira: irudian, Leitzakoa. J. ASTIBIA

## Arronizko lau t'erdikoan finala dute Aurrerakoek

Lizarrako sariketan ere txapelaren bila doaz; bihar eta etzi dira jokatze-koak

J. ASTIBIA

Aurrera pilota eskolako pilotari gazteak ere zorioneko dira, hango eta hemengo pilota txapelketetan parte hartzen dute, asteburuko partiduak jokatuz, eta oraingo honetan finalera iritsi dira, bitan.

Bihar bertan eta 10:00etan, lau t'erdia-aren barrenean, Arronizko Txapelketako finalak jokatuko dituzte, eta benjaminen eta infantilen mailan hantxe izanen dira jokoan Aurrerakoek. Hala, benjaminen mailan Mikel Sagastibeltza lei-

tzarrak Oberena taldeko Mariezkurrenaren aurka aritu beharko du, eta Anartz Olano aresoarrak, berriz, Garaio lizarrararen aurka. Infantiletan, Jon Jaunarena leitzarra txapelaren lehian ariko da, Tainta Brañaingo eskolakoaren aurka.

Bestalde, Lizarrako Sariketako binakako finalean dira ere Jon Iparragirre eta Anartz Olano; Keralta eta Garaio izanen dituzte aurkari, etzi, igandea, 10:00etan hasiko den jaialdiko bigarren partiduan, Lizarran.

LEITZA ▶ FUTBOLA

## Urtearekin batera, Ligako bigarren itzuliari ekinen diote: Aibares-en aurka

Sailkapenean hirugarren egonik, indartsu eta gogotsu dago Leitzako Aurrera futbol taldea

J. ASTIBIA

Urtea ongi bukatzen duenak berria hala hasteko itxaropena izaten omen du, eta Aurrera futbol taldeak hala egiteko ez darama bide batere txarra.

Ligako bigarren itzuliko aurreneko partidua bihar jokatuko dute leitzarrek, eta ez diote leku makaletik ekinen, beren taldeko sailkapenean hirugarren baitaude, 26 punturekin, Baztan eta Gazte Berriak-en ondoren —28 eta 27 rekin dau-

de hauek—. Lehen itzulirako jarri zituzten helburuak beteta, hots, igoerako lekuetan egotea zuten egitasmoa. «oso baikor» agertu ziren taldeko ordezkarriak balantzea egiterakoan eta Eguberriak «lasaitzeko eta atsedean hartzeko» izan dituztelarik, orain «indarberrituta eta gogoz» ekin diote lanari.

Hasi ere, Aibaresen aurkako partiduarekin emanen diote hasiera bigarren itzuliari bihar, hain zuzen ere, Ligako aurreneko partiduan izan zuten aurka-



Etxean eta Aibaresen aurka jokatuz hasi zuten Liga (irudian). J. ASTIBIA

ri berarekin, eta haren zelaian, Aibarren, 15:45ean.

Etorrerakoan, Arkixkilen, beraz, iazko irailaren 11n jokatuko zuten aurreneko partidua har-

tan, 3 eta 4ko emaitza markagailuan zela bukatu zen partidua: Aurrerak galdu dituen bi partiduetako bat izan zen hura, eta etxean galdu duen bakarra,

zehazki. Orduan oraindik Ligako marxa hartzekoak zeuden eta beste kontu batzuk ziren. Oraingo kasuan, ordea, taldea eginagoa dago, eta orduko arantza ateratzeko baliatzekotan, hara aukera.

Bestalde, aitatu behar da Aurrerako gazte mailako taldeak hurrengo asteburuan ekinen diola jokatzeari.

### ▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

**Eztabaida.** Irakurleok gure iritzia eman dezakegu hainbat gaien inguruan. Esate baterako, Tolosan, azken boladan izaten ari diren liskarrei buruz; horrelakoak zergatik gertatzen ote diren, konponbidea zein litekeen... eztabaidatu daiteke.



Harpidedunei banatua ▶ 2006ko urtarrilaren 6a, ostirala ▶ IV. urtea

**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Asteasu.** Poxpolo, Mokolo eta konpainia pailazoan saioa. Bihar, 17:30ean, kiroldegian. Guraso Eskolak antolatuta.

**Tolosa.** Errege Eguneko meza nagusian, Santa Mariako Musika Kaperak (abesbatza, orkestra eta organoa) Eduardo Mokoroaren *Pastoral* meza, Felipe Gorritiren *Gradual, Oi Bethleem* eta *Mesias* eskainiko ditu, Santa Maria parrokian, 11:00etan.

**Tolosa.** Erregetako Xake Txapelketa. 10:00etatik aurrera, Aurrera elkartean (izen-ematea 09:30ean zabalduko dute).

**Tolosa.** Laskorain Ikastolak urteroko Merkatu Txikia antolatu du Kultur Etxean, Sahararen eta Boliviaren alde. Saharara bidaltzeko elikagaiak ere jasoko dituzte bertan. Bihar da azken eguna; 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara zabalik.

**Tolosa.** Herritarren parte-hartze jardunaldiak hilaren 13an eta 14an, arau subsidiarioez. Parte hartzeko deitu 943 69 74 50 telefono zenbakira.

**ERAKUSKETAK**

**Alegia.** Juani Alkortaren margolanak. Hilaren 9ra arte ikusgai, Jubilatuen tabernan.

**Tolosa.** Manuel Lasarte bertsolari leitzarrari buruzko erakusketak. Hilaren 14a arte, Aranburu Jauregian.

**Tolosa.** Alejandro Tapiaren pinturak. Hilaren 28ra arte, Aranburu Jauregian.

**MUSIKA**

**Anoeta.** Txistularien kalejira, 12:00etan hasita.

**Tolosa.** Udal Txistulari Bandak eta Musika Bandak Erregetako kontzertua eskainiko dute, Pablo Gorosabeleko areto nagusian, 12:00etan.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
Tolosa. Ollareaga, J. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.  
Leitza. Larraia, M. I. Elbarren, 95. 112.

▶ HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan iriztien erantzukizunik.

# Irurako eta Tolosako txokoak

**I. MARRAZKI LEHIAKETA ▶** Sergiok, Francisco Javierrek, Maialenek eta Jonek ere ekarri dizkigute beren marrazkiak; gaur duzue horretarako azken eguna



**IRURA ▶**

**Sergio Goenaga Bengoa (8 urte, Irura).**

«Hau Irurako plaza da. Ni hemen geratzen naiz batzuetan autobusetik etortzen naizenean eta motorrei begira geratzen naiz.»



**TOLOSA ▶**

**Francisco Javier Ceberio Irazusta (10 urte, Tolosa).**

«Gauza ona zezen-plaza da, Inauterietan jendea oso gustura joaten delako; gauza txarra trenbidea, eskale asko egoten delako.»



**TOLOSA ▶**

**Maialen Alonso (10 urte, Tolosa).**

«Hemen, gure herrian, zezen-plaza dago. Jendea oso pozik ibiltzen da zezenekin. Mota guztietako zezenak dauzkagu.»



**TOLOSA ▶**

**Jon Eusebi Hidalgo Delgado (7 urte, Tolosa).**

«Niri asko gustatzen zaizkit nire herrian dauden plazak futbolean jokatzeko. Plaza Berria eta nire etxeko parkea.»

**AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**  
Ane (Tolosa).

Gaur 3 urte. Zorionak eta muxu bat familiaren partetik.

**URTE ASKOAN**  
Ana Jesus Argote

(Belauntza). Gaur 24 urte. Zorionak ebekoen partetik.

**HITZA, zorion agurren**  
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, **tartea** ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:  
HITZAren egoitzara: Araba etorbidea, 5 behega - TOLOSA Udaletxeko bulegoa - LEITZA  
Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!